

{ analisia } **Jose Angel Oria**

# Bestelako Ekialde Hurbila

**N**azioarteko berriekin aritzea tokatzen zaigunok oso gutxitan izaten dugu Ekialde Hurbilari buruz gauza pozgarriak kontatzeko aukera: sarraskiak ez badira, sarekadak, bortxaketak eta torturak izaten dira; diktaduren gehiegikeriak izaten ez direnean, ustezko demokraziarenak izaten dira; agintarien kontuak betiere, herriari sufrimendua baino ez zaio geratzen-eta. Horregatik gure barruan zerbait mugiarazi zuen Manuel Martorellek Cuartopoder egunkari digitalean argitara eman zuen testuak: «Turkiako udal hauteskundeak irauli dituzte emakume kurduen hautagaitza masiboek». Bestelako Ekialde Hurbila eraikitzeke proposamena eta, gainera, arrakasta handikoa. Emakumeari begira jarrita fokuak, emakumea sukaldean sartuta ikusi nahi duen joera indartzen ari den Estatuan. Ezkerreko indar baten ekimena, gizarteko beste sektore batzuetako herritarrek erakartzen. Gainera, Khitam Saafin Palestinako emakume borrokalaria beterranoak GAUR8ri adierazi zion emakume kurduen esperientzia oso kontuan hartzen dutela palestinarrak. Eskerrak!

Martorellek eskainitako datuen arabera, BDP Bakea eta Demokraziaren Alderdiak aurkeztu zituen hautagaien %55 emakumeak ziren. Beste alderdien hautagaitzekin alderaketa eginez gero, hobeto ikusten dira kurduen ezkerreko formazioaren meritua eta ekarpena: Turkian oposizioan dagoen CHP indar kemalistak, %4,32; eskuin muturreko

25 urterekin Mardin hiriko alkatea den Februniye Akyol emakumea herri kurduaren ekimen arrakastatsu baten ikurretako bat da. Iritzia eskatu diogu Manuel Martorelli eta ekimena arabiar munduan imitatzeke modukoa ote den galdetu diogu Santiago Alba Ricori.

MHPk, %2,51; eta Ankarako Gobernuan dagoen AKP islamistak, %1,15 besterik ez.

## Erdoganen porrota

«Egia da Erdoganen ustekabe-ko garaipena esanguratsua izan dela Turkiako udal hauteskundeetan. Egia da ere emaitzek hiru Turkia ezberdin daudela baieztatu dutela: AKP alderdiarekin bat egiten duen nekazaritza eremuetakoa; hiri handietan eta Mediterraneo-ko itsasertzean CHPren alde egiten duena; eta, azkenik, Kurdistan, bestelako proiektu politiko bat abian duen eremua: BDPk bultzatzen duen autonomia kurdua», esplikatu dio GAUR8ri Martorellek.

Ekialde Hurbileko gaietan aditu den kazetariak erantsi du Erdoganen alderdiak udal

hauteskundeak irabazi baditu ere, kurduetikozko zuen estrategiak porrot egin duela.

Bere irakurketaren arabera, AKP alderdiak herritar kurduak PKK-ko «heretikoengandik» aldentzea nahi zuen, eta erlijioaren arditegira itzultzea. «PKKren beso politiko-tzat hartzen duten BDP alderdiak lehendik agintea zuen zortzi probintzietako hiriburuak eutsi die, eta AKPri beste hiru kendu dizkio: Mardin, Bitlis eta Agri. BDPri botoak kentzeko, hautagaitza kurdu islamista bat ere legeztatu zuen AKPk, Huda Par edo Jainkoaren Alderdia: barregarri geratu da, BDPk ia bi milioi boto jaso baditu, formazio berria ez baita 90.000 botorak iritsi».

Martorellek uste du une erabakigarrietan kurduak

nahiago izaten dutela beraien eskubide kultural eta politikoak babesteko dituen alderdi bat lehentasuna erlijioari ematen dion indar politiko bat baino, nahiz eta kurdu gehienak musulmanak diren. «Kurdu batentzat, musulman izatea garrantzitsua da, baina garrantzitsuagoa da bere herria, Kurdistan, defenditzea. Hauteskunde horietan indartu egin den arrazoiak hori garrantzi handikoa da soziologikoki, milioika pertsonengan eragina izan dezakeen pentsamolde aldaketa dakarrelako», dio kazetariak. «Balore kurduen defentsa balore erlijio-soen defentsaren gainetik badago, edozein pertsona edo erakunderekin, bere joera erlijiosoa edozein izanda ere, elkarlanean aritzeko ateak zabaltzen dira, helburu nagusia proiektu politiko kurdu bat garatzea izanda».

Kazetariak esplikatu digunez, ez da fenomeno berria. Kurdistanen azken urteotan ohikoa omen da pertsona zaharrek, baita kleriko musulman batzuek ere, ideia erlijio-soak bigarren planoan jartzea, nahiz eta erlijioa beren bizitzan oinarritzeko kontu bat izan den. Horrela, musulmanak ez diren beste kurduen elkarlan politikoa egitea onartzen dute. Gainera, aurre-aurrean, lehen planoan, emakumeak jartzea ere onartzen dute, «proiektu politiko nazional bat defenditzen dutelako, hori baita benetan garrantzitsua». «Suniten jazidiekiko eta aleviekiko gorrotoa eta erlijioarekin zerikusirik duten beste tabu asko desagertu egin dira nekazari giroko gizarte horretan, gehiengo sunita izan arren, askapen nazionalerako



mugimenduari esker». Adibide moduan gogorarazten du iazko urtarrilaren 16an, Parisen erail zituzten Sakine Cansiz, Fidan Dogan eta Leyla Soylemez PKK-ko hiru ekin-tzaileei egin zieten ongietorrian ehunka mila lagun elkartu zirela Diyarbakir hirian. «Hiru emakumeen hilketak oihaltzen gaituzten jarritak zeuden eta PKKren banderak estalita. Seguru asko musulman zintzoak ziren parte hartzaile askorentzat, gauzarik garrantzitsuena ez zen beraien erlijioak ziren ala ez, herri kurduaren nahi politiko eta demokratikoak ordezkatzeko zituztela baizik».

Turkiar Estatuko 22 probintzietan kurduak dira herritar gehienak. Estatuko eremurik atzeratuena dira, nekazaritza girokoak. Hala ere, BDP alder-